

# **EUSKO JAURLARITZAREN IKERTZAILE DOKTOREENTZAKO MUGIKORTASUN PROGRAMARAKO DEIALDIA 2018**

## ***Deialdiaren helburua:***

Dedikazio eskusiboarekin, ikerketa-zentroetan egonaldiak egitea; batetik, I+G+B zentro eta erakundeetako ikertzaileen eta unibertsitateko irakasleen mugikortasun geografikoa bultzatzeko, eta, bestetik, ikertzaile-taldeen lehiakortasuna eta gaitasunak hobetzeko.

Egonaldian zehar, ikertzaileek ikerketa proiektu bat garatu beharko dute, zeina talde hartzailearen lan-ildoan integraturik dagoen; edo, bestela, goi-mailako lortura eta elkartrukeak ezartzera bideratutako jarduerak burutu beharko dituzte.

## ***Egonaldia egiteko zentroak:***

- Honako hauek izan daitezke helburuko zentro: laguntza-eskabideak aurkezteko proiektu zientifikoaren arloan, prestigio akademikoa eta ikerketakoa aitortua izanik ikerketa-funtzioak esleiturik dituztenak.
- Helburuko zentroek, betiere, eskatzen diote izangaiari bizileku finkoa izan dezala mugikortasun-aldi osoan zehar.
- EAEz kanpo egon beharko dute helburuko zentroek.

## ***Egonaldien ezaugarriak:***

- 2018ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean egon beharko du egonaldiaren hasiera-egunak.
- Egonaldiak, gutxienez, 2 hilabetekoak izango dira eta, gehienez ere, 6 hilabetekoak, etenik gabe egin beharko direnak. **Egonaldia sei hilabetetatik gorako epe batez izango dela eskaeran adierazten bada, eskaera ez du onartuko nahiz eta eskatutako egonaldia 6 hilabetekoak izan, zuzenketa barik.**
- Emate-ebazpenean zehaztutako egunean hasi beharko da egonaldia.
- Ikertzaileko, egonaldi-proiektu bakarrerako izango da laguntza.
- Proiektua helburuko zentro bakar batean egingen da.

## ***Eskatzaileek bete beharreko baldintzak:***

- a. Egiatztatutako lan-loturari dagokionez zerbitzu aktiboan izatea. Hautagaiak erakunde eskatzailearekiko duen lan-loturak egonaldia amaitu arte iraun beharko du.
- b. Doktorea izatea.
- c. Erakundearen lanpostu-zerrendan kontratu mugagabea izatea, bi urteren antzinakotasunaz. Irakasle atxikien lotura duten ikertzaileen eskaerak onartuko dira, betiere irakasle agregatu edo titular gisa egiaztatuta badaude eskaerak aurkezteko epea amaitzen denean.
- d. Programa honetatik zein antzeko ezaugarriak dituen beste edozeinetatik laguntzarik ikerketa-zentroetan egonaldiak egiteko 2016an edo 2017an jaso ez izana.
- e. UPV/EHUko ikertzaileek laguntza horiek jaso ahal izango dituzte, betiere ikerketa-talderen batean egon eta talde horrek euskal unibertsitate-sistemako ikerketa-taldean «A» edo «B» taldearen delako errekonozimendua jaso eta indarrean badu.

Baldintza guztiak eskaera egiten den unean bete beharko dira eta egonaldia hasten den egunean ere hala bete beharko dira.

### Laguntzen zenbatekoa:

- Hileko, 1.500 euroatik 2.400 euro tara bitartekoa izango da laguntza.
- Laguntza gehigarria emango da destinoko zentrorako joan-etorriak guztiz edo partzialki ordaintzeko.
- Joan-etorriak egiteko, bisatua izapidetu behar izanez gero, 200 euroko diru-osagarri bat emango da.

### Eskabideak aurkezteko epea:

**2017ko azaroaren 9 arte (barne delarik).**

### **GARRANTZITSUA: Ikerkuntzaren arloko balidazio elektronikoa**

Eskaria epez eta formaz aurkeztu ahal izateko, eskaerak Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren sinadura elektronikoa izan beharko du. Aplikazioarekin sor litezkeen arazo teknikoak ekiditearren, eskatzaileek barne epe bat izango dute eskaera aplikazioan itxi ahal izateko, berori **2017ko azaroaren 8an, asteazkena**, amaituz. Ezin izango da balioztatu epe hori amaitu eta gero aurkeztuko litzatekeen eskaririk.

2017ko azaroaren 9an, osteguna, Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren UPV/EHUko erabiltzaileei laguntza emateko zerbitzua 16:30ak arte egongo da zabalik.

### Aurkeztu beharreko agiriak:

Beherago zehaztutako agiriak jaso behar dira eskabidean:

- Egonaldian egingo den ikerketa-proiektuari buruzko memoria.** Egonaldiak hautagaiari eta erakunde onuradunari dakartzkion onurak ere jaso beharko ditu memoriak. Gehienez, hiru orri.
- Hautagaiaren **curriculum vitae**a, inprimaki normalizatuan edo baliokidean, zeinetan azken sei urteetako merezimenduak jasotzen diren.
- Zerbitzu-orria** edo enpresa-ziurtagiria, zeinetan honako hauek jasotzen baitira: antzinasuna, eta hautagaiaren eta erakunde eskatzailearen arteko kontratu-harremana.
- Ikerketa jardueraren aldi baterako etena** justifikatzen duten **egiaztagiriak**, 11.2.b. artikuluan jasotako kasuen arabera (iraupen luzeko aldi baterako lan ezintasuna, amatasuna, aitatasuna, edoskitzaroko arrisku egoera, umeen adopzioa edo harrera).
- Talde hartzailearen historia zientifikoa eta akademikoa**, zeinetan jasoko baita ikertzaile-talde hartzailearen arduradunaren azken sei urteetako curriculum vitae a.
- Laguntza jasoz gero, **ikertzaile-taldeko arduradunaren konpromisoa, bere taldean hautagaia** -eskatutako epealdian zehar- **onartzeko dena**. Egonaldiaren helburuari eta garatuko diren jardueri buruzko deskripzioa jaso beharko du dokumentuak.
- Hautagaiari lizentzia ematea edo emateko konpromisoa**; erakunde eskatzaileko organo eskudunak eman beharko du lizentzia hori. Egingo den egonaldiaren helburua eta datak jasoko ditu dokumentuak.
- Hautagaiari zein ikertzaile-talde hartzaileko arduradunari dagokionez, ikerketa-jardueraren kalitatearen adierazleei buruzko laburpen eguneratua** (argitalpen zientifikoak, ikerketa-proiektuak, biltzarrak, tesiak, patenteak). Aplikazioak dokumentu horien txantilo bat du.
- Hautagaiak **lehenago egindako egonaldien ondorioz erakunde onuradunari datozkion onurak**. Aurkeztutako ebidentziak balioetsi egingo dira.

**Eskaria egiteko prozedura:**

Eskabideak bide telematikoz aurkeztu beharko dira, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egoitza elektronikoan:

<http://www.euskadi.eus/informacion/ayudas-al-personal-investigador-movilidad-del-personal-investigador/web01-a2hunib/es/>

**UPV/EHUko IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDEAREN SINADURA  
LORTZEKO PROZEDURA:**

EPEA	IZAPIDEA
2017ko urriaren 27a arte	Erantzukizunpeko aitortena beteta bidali, hautagaiak sinatuta, hona: <a href="mailto:convocatorias.dgi@ehu.es">convocatorias.dgi@ehu.es</a> . (Webgunean eskuragarri dago txantiloia).  Barne dokumentu bat da, aplikaziora igo behar ez dena.
2017ko azaroaren 8a arte (barne delarik).	Online eskaria bete eta beharrezkoak diren dokumentuan aplikaziora igo. Eskaera itxita egon behar da, Ikerketaren arloko errektoreordeak digitalki sina dezan.  Eskatzaileak eskaria eta aplikazioan sartutako gainontzeko dokumentazioa (PDF formatuan) bidali behar ditu hona: <a href="mailto:convocatorias.dgi@ehu.es">convocatorias.dgi@ehu.es</a> .  Ezin izango dira balioztatu data honen ondoren bukatutako eskariak
2017ko azaroaren 9a	Ikerketaren arloko Errektoreordetzak eskariak aurkeztuko ditu Errektoreordearen sinadura digitalaren bitartez.  Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren UPV/EHUko erabiltzaileei laguntza emateko zerbitzua 16:30ak arte egongo da zabalik.

**Informazio gehiago:**

Hauek dira erakundearen (UPV/EHU) datuak eskaera betetzeko:

- IFK: Q4818001B
- Helbide soziala: Sarriena auzoa, z/g, posta kodea: 48940, herria: Leioa (Bizkaia)
- Ordezkarri legala: FERNANDO PLAZAOLA MUGURUZA, kargua: Ikerketaren arloko errektoreordea.
- Email: [convocatorias.dgi@ehu.es](mailto:convocatorias.dgi@ehu.es)

**UPV/EHUrekiko harremana:**

- Tf.: 94 601 5183
- E-mail: [convocatorias.dgi@ehu.es](mailto:convocatorias.dgi@ehu.es) (gaian hau jarri: MUGIKORTASUNA EJ 2018)